

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILAJarduera Fisikoaren eta Kirolaren
ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Dirección Actividad Física y Deporte

JUSTIFIKAZIO-MEMORIA, KIROLEKO DOPINAREN AURKAKO LEGEA ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKOA

A.- SARRERA.

Jaurlearitziari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 57. artikulua honako hau xedatzen du, hitzez hitz, 1. apartatua ekainaren 2ko 8/2016 Legearen 3. artikulua bidez aldatu zitzaionetik:

- 1. Eusko Legebiltzarrari aurkezten zaizkion lege-proiektuekin batera, Abolku Batzorde Juridikoaren txostena ere igorriko da eta, halakorik bada, txosten horretara egokitzeke oroitidazkia.*
- 2. Lege-proiektuek aurrekonturako kargarik badakarte, dagokion finantza-eranskina izango dute. Eranskin hori Legebiltzarraren Erregelamenduak lege-proiektuei buruz xedatutakoaren arabera eztabaidatu eta bozkatu da.*

Ildo berean, araugintza-teknikako jarraibideak ere hartu behar dira aintzat, 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluak onetsi baitzituen eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako sailburuaren 1993ko apirilaren 6ko Aginduaren bidez argitaratu baitziren; izan ere, bertan xedatzen da lege-proiektuetan «Zioen azalpena» izeneko azalpen-atal bat ere egon behar dela. Atal horretan, labur-labur azaldu behar dira honako hauek: lege-proiektua egiteko arrazoiak, helburuak, horretarako ahalmena ematen duten oinarri juridikoak, erregulazioaren printzipioak eta ildo nagusiak eta indarreko araudian izango duen eragina, bereziki alderdirik berritzaileenak.

Araugintza-teknikako jarraibide horien arabera, legegintzako proiektuarekin batera, memoria bat ere aurkeztu behar da. Memoria horrek proiektu horren analisi sakonagoa egin behar du, betiere honako hauek aintzat hartuta: lege erantzun nahi den egoera edo arazoa, dauden aukerak eta proposatutako aukeretako baten alde egiteko arrazoiak, eta proposatutako erregulazioak antolakuntzan edo finantzaketan izango duen eragina. Hain zuzen, azken errekerimendu horri erantzuten dio memoria honek; izan ere, hauek justifikatu nahi ditu, besteak beste: Legearen beharra, eskumen-gaikuntza, lortu nahi diren helburuak, aurreproiektuak beste aukera batzuen artean hobetsi dituen neurriak, bai eta neurri horien bideragarritasuna ere.

B.- NAZIOARTEKO ARAUDIAREN IZAERA LOTESLEA ETA DOPINAREN AURKAKO MUNDU KODEAREN IZAERA.

Eusko Legebiltzarrak Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea onartu zuen, eta, horretarako, kiroleko dopinaren aurkako borrokan estatuan eta nazioartean aurreratuen dauden erakundeek onartutako printzipioak erabili ziren. Lehiaketa-kirolaren egitura piramidala denez, eta kirol-lehiaketek elkarren artean lotura dutenez lurralde-

eremuetan eta -mailetan, Euskal Autonomia Erkidegoak esparru juridiko propioa behar du kiroleko dopinaren aurkako borrokan aritzeko, baina estatuko eta nazioarteko esparruari egokituta.

2003. urtean, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak (Suitzako zuzenbidearen mendeko fundazio pribatua da) Dopinaren aurkako Mundu Kodea idatzi eta onartu zuen, eta kode horren osagarri diren Nazioarteko Estandarrak ere zehaztu zituen. Kodea 2004. urtean jarri zen indarrean, eta 2009ko urtarrilaren 1ean aldatu zen. Testu horiek nazioarteko kirol-mugimenduak nahitaez bete beharreko arau eta jarraibideen multzoa dira, baita beharrezko erreferentzia ere dopinaren aurkako borrokan esku hartzen ari diren erakunde publikoentzat (legebiltzarrak eta gobernua, nagusiki).

Dopinaren aurkako Mundu Kodea gobernu kanpoko tresna pribatua denez, onartu ondoren, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak hainbat ekimen abiarazi zituen, eta, horien ondorioz, UNESCOk Kiroleko Dopinaren aurkako Nazioarteko Konbentzioa onartu zuen, 2005eko urriaren 19ko bilkuran. Espainiak ere berretsi du konbentzio hori (2007ko otsailaren 16ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen), eta barne-ordenamenduaren zati bat da, Konstituzioaren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera.

12/2012 Legea Dopinaren aurkako Mundu Kodea egokitzeko asmoa duen aurreproiektu honetan, aipatzekoa da kode horrek ez duela gobernu zuzenean bete beharreko nazioarteko itunaren izaera juridikorik. UNESCOren Nazioarteko Konbentzioak espresuki onartzen ditu Dopinaren aurkako Mundu Kodearen printzipioak, zeinak berariaz jasotzen baititu 1. gehigarrian, baina argi eta garbi ukatzen du Kodea beraren zatia denik, «kode hori informazio gisa jasotzen delako, ez baita Konbentzio honen zati». Era berean, 4.2 artikulua gehitzen duenez, «gehigarriek ez dute nazioarteko zuzenbideko betebeharrak loteslerik sortzen estatu partaidentzat».

Hori kodearen izaera pribatuari zor zaio. Kodeak berak onartzen duenez, «Gobernu gehienak ezin dira gobernu kanpoko tresna pribatuen (adibidez, Kodearen) partaide izan, ez eta haiei lotuta gelditu ere. Hori dela eta, gobernuari ez zaie eskatzen Kodea sinatu dezaten, baizik eta Kopenhageko Adierazpena sinatu eta UNESCOren Konbentzioa berretsi, onartu edo bereganatu dezaten», horrek berariaz aintzatesten baitu Kodea, eta kodearen printzipioak onartzera behartzen ditu estatu partaideak. Era berean, Konbentzioan estatu partaideen betebeharrak ugarri ezartzen dira, Kodeari dagokionez:

- Kirol-jarduerekin lotutako finantza-laguntza edo bestelako laguntza guztia edo zati bat kentzea kirol-erakunde edo dopinaren aurkako erakunde orori, baldin eta ez baditu aplikatzen Kodea edo Kodearen arabera onartutako dopinaren aurkako arauak.
- Dopin-kontrolak Kodearekin bateragarria den moduan egitera bultzatzea eta erraztea.
- Elkarri aintzatestea dopinaren aurkako erakunde guztien dopin-kontrolerako prozedurak eta proba klinikoaren emaitzen kudeaketa, dagozkien kirol-zehapenak barne, Kodearen arabekoak direnean.

Horrekin batera, Dopinaren aurkako 2021eko Mundu Kodeak berak gobernuaren konpromisoak aipatzen ditu: UNESCOren Konbentzioa betetzeko beharrezkoak diren



ekintzak eta neurriak abiaraztea, Kodean ezarritakoaren arabera legeak eta erregelamenduak abian jartzea, eta abar. Eta gobernu batek UNESCOren Konbentzioa berresten, bereganatzen edo onartzen ez badu, edo Konbentzio horretan ezarritakoa betetzen ez badu, «eragotzi ahal izango zaio ekitaldien ospakizunetarako hautagaitza aurkeztea eta/edo ekitaldi horiek hartzea» (Dopinaren aurkako 2021eko Mundu Kodearen 22.10 artikulua).

Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legean aldaketa bat egin da jada, ekainaren 7ko 1/2018 Legearen bitartez (2018ko ekainaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua). Orduan, ekainaren 7ko 1/2018 Legearen bidez, ekainaren 21eko 12/2012 Legea Dopinaren aurkako Mundu Kodea egokitu zen, zeina Johannesburgen (Hegoafrika) onartu baitzen, 2013ko azaroaren 12tik 15era bitartean egindako Dopinaren aurkako IV. Mundu Konferentzian, zenbait kirol erakunde eta estatuen parte hartzearekin. Dopinaren aurkako Mundu Kodea 2015eko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean. Bada, Katowicen (Polonia) izandako Dopinaren aurkako V. Mundu Konferentzian, 2019ko azaroaren 7an, kirol-erakunde eta estatuen ordezkarien parte hartzearekin, Dopinaren Aurkako Mundu Kodea onartu zen, eta 2021eko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean (Dopinaren aurkako 2021eko Mundu Kodearen 27.1 artikulua arabera).

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoak nahitaez eta lehenbailehen egokitu beharra dauka orain indarrean dagoen Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea Kodearen aldaketetara. Estatuetakoko legediek kode berriaren berritasun nagusiak ezarri behar dituzte, eta horrek gaiari buruzko EAeko legeria aldatzea dakar. Kirol-jardueran osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzko ekainaren 20ko 3/2013 Lege Organikoaren kasuan, dagoeneko iragarri du Espainiako Gobernuak (Ministro Kontseiluaren 2020ko urriaren 6ko bilkura) Parlamentuari proposatuko diola araudia berrikustea, Kodearen aldaketa nagusiak sartzeko.

C.- ESKUMENEKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIAK

Euskal Autonomia Erkidegoak, autonomia-estatutuaren 10.36 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskumen eskusiboa dauka kirolaren arloan. Eskumen-titulu hori baliatuz, Eusko Legebiltzarrak 14/1998 Legea onartu zuen, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena, zeinak, 4.2.q artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei esleitzen baitie dopina prebenitzeko, kontrolatzeko eta zigortzeko araudia. Era berean, Eusko Legebiltzarrak Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea onartu zuen, zeina orain aldatu nahi baita, Dopinaren Aurkako 2021eko Mundu Kodean jasotako nazioarteko esparrura egokitzeko.

Aholku Batzorde Juridikoak 231/2011 Irizpenean modu egokian adierazi zuen bezala, orain aldatu nahi den Legeari helduz, aipatutako eskumen-tituluek gain beste eskumen batzuk ere hartzen ditu eraginpean, hala nola autogobernu-erakunde antolatetaren arloa (EAEEn 10.2 artikulua), bereziki Dopinaren aurkako Euskal Agentziaren erregulazioa dela eta, eta Euskal Herriak emandako zuzenbidearen berezitasunen eta bere antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauen eta administrazio-jardunbideari dagozkion arauen gaineko eskumena (EAEEn 10.6 artikulua), diziplina- eta zehapen-prozedurak arautzen baititu.

D.- XEDAPENAREN LERRUNA. LERRUNA IZOZTEA

Lerruna izoztearen printzipioari jarraikiz eta aintzat hartuta aldatu nahi den arauak lege-lerruna duela (zehazki, Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea), argi dago aldaketa ezinbestean egin behar dela lege-lerruna duen beste xedapen baten bidez. Gai edo alor bat legez arautzen denean, izoztuta geratzen da gai horren arau-lerruna, eta horrek esan nahi du geroko lege batek bakarrik esku hartu ahal izango duela gai horretan.

E.- PROIEKTUAREN APLIKAZIO-ESPARRUA.

Prestatutako testu artikulatuaren aplikazio-eremua ekainaren 21eko 12/2012 Legeak duena da; izan ere, arestian aipatu bezala, helburua da lege hori Dopinaren aurkako Mundu Kodera egokitzea.

F.- LEGEAREN TITULUA.

Araugintza-teknikako jarraibideen arloan, behin eta berriz aipatu da lege baten titulua legetestuaren osagai garrantzitsu bat dela, legea identifikatzeko, interpretatzeko eta aipatzeko aukera ematen baitu. Tituluaren hasierak beti identifikatu behar du zer xedapen mota den: lege-aurreproiektua, dekretu-aurreproiektua, eta abar. Kasu honetan, ez dago zalantzarik: hasiera batean, «lege-aurreproiektu» gisa onetsi behar da, Gobernu Kontseilura bidali aurretik. Ondoren, Gobernu Kontseiluak «lege-proiektu» gisa onetsi eta Eusko Legebiltzarrerera igorriko du, bertan izapidetu dezaten.

Xedapenaren izena xedapenaren beraren edukiaren eta helburuaren berri ematen duen tituluaren zatia da, eta xedapena identifikatzeko eta funtsezko edukiak deskribatzeko balio du. Oro har onarturik dauden araugintza-teknikako jarraibideen arabera, izena argi eta zehatz idatzi behar da, xedapena identifikatzeko edo aipatzeko zailtasunak eragin ditzaketen deskribapenik edo luzerarik gabe.

Era berean, araugintza-teknikako jarraibideen arloan ezarritako irizpideari jarraikiz, aurreko xedapenetan aldaketak egiteko xedapenen tituluan adieraziko da halako izaera duela (aldaketak egitekoa dela) bai eta aldatutako xedapenen titulua ere, baina argitaratu diren aldizkari ofizialaren izena aipatu gabe. Edonola ere, tituluan ez da agertu behar xedapenaren zer artikulua edo zati aldatzen den, baina egin nahi den aldaketaren funtsezko edukiari buruzko aipamena egin ahal izango da, baldin eta aldaketak zati jakin batzuk baino ez badizkio hartzen aldatutako arauari.

Kasu honetan, definizio argi eta zehatz bat proposatzen da, gehiegi luzatzen ez dena. Araugintza-teknikako jarraibideek horretarako aukera ematen dutenez, erreferentzia egiten zaio Legearen funtsezko edukiari: Dopinaren aurkako Mundu Kodera egokitzea. Egia da proposatutako aldaketaren bat ez duela kode horrek eragin, baina legegintzako erreforma hau egiteko helburu nagusia da 12/2012 Legea nazioarteko esparrura egokitzea.

Memoria honetan, zenbait aukera aztertu ditugu:

- 1.- .../..... Legea,(e)koa, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzekoa.



Aukera horrek, araugintza-teknikako jarraibideen arabera, ez ditu aldatutako legearen data eta zenbakia aipatzen. Aukera honen desabantaila da ez duela aldatetaren ezaugarri edo helburu nagusia aipatzen; hala ere, aldatutako xedapena aipatzen du.

2.- .../..... Legea,(e)koa, Dopinaren aurkako legedia Dopinaren aurkako Mundu Kodera egokitzeari buruzkoa.

Aukera hori proposatzen dugu; izan ere, laburragoa da eta hobeto jasotzen du proiektuaren helburua, nahiz eta ez duen beren-beregi aipatzen zein den aldatzen duen xedapena.

3.- .../..... Legea,(e)koa, Dopinaren aurkako Legea Dopinaren aurkako Mundu Kodera egokitzeari buruzkoa.

Aukera hori zehatzagoa da, zehazki aipatzen dituelako aldatutako xedapena eta aldatetaren funtsezko helburua. Aurrekoa baino apur bat luzeagoa da.

4.- .../..... Legea,(e)koa, zeinak Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzen baitu Dopinaren aurkako Mundu Kodera egokitzeko.

Aukera horrek aipatu egiten ditu hala aldaketa egiten zaion xedapena nola aldatetaren helburu nagusia, baina ez da behar bezain laburra.

Edonola ere, memoria honek agerian utzi nahi du ezen goian adierazitako aukeretako edozein azter daitekeela jasotzen diren iritziak edo txostenak kontuan hartuta; batez ere, Aholku Batzorde Juridikoarena.

G.- ARAUTZE ONAREN PRINTZIBIOAK. LEGEAREN BEHARRA.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua xedatzen duenez, legegintza-ekimenak egiteko ahala baliatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dute: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Eusko Jaurlaritzaren araugintza-ekimen honetan behar beste betetzen dira premiaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, sinpletasunaren eta efikaziaren printzipioak. Gainerakoak ez dira zuzenean aplikagarriak, proposatutako aldaketen izaera bereziagatik.

Premia-printzipioaren arabera, araugintza-ekimenak interes orokorreko arrazoi batekin justifikatuta egon behar du, lortu nahi diren xedeen definizio argi batean oinarritua izan, eta haiek lortuko direla bermatzeko tresnarik egokiena izan. Kasu honetan, lege-aurreproiektuak bete egiten du premia-printzipioa, interes orokorreko arrazoi bat dagoen neurrian; izan ere, egun indarrean dagoen ekainaren 21eko 12/2012 Legea Dopinaren aurkako Munduko Kodeari egokitu behar zaio, 2021eko urtarrilaren 1ean sartu baita indarrean, Dopinaren aurkako V. Mundu Konferentzian onartu ondoren, Katowicen egin baitzuten, Polonian,



2019ko azaroaren 5etik 7ra, Eusko Jaurlaritzaren beraren ordezkari bat bertan zela.

Halaber, proportzionaltasun-printzipioari erreparatuta, proposatzen den ekimenak arauarekin bete nahi den premiari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa izan beharko du, eta egiaztatu beharko da, lehenago, ez dagoela beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago ezarriko dienik. Kasu honetan, legeaurreproiektuak bete egiten du proportzionaltasun-printzipioa; izan ere, aurreko legea aldatu baino ez du egiten, eta tresna juridiko bakarra da helburu hau lortuko dela bermatzeko: Euskal Autonomia Erkidegoan dopinaren esparruan indarrean dagoen legedia nazioarteko esparru juridikora egokitzea.

Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araugintza-ekimena gauzatzean koherentzia gorde behar da gainerako ordenamendu juridikoarekin, izan Estatukoa zein Europar Batasunekoa, araugintza-esparru egonkor, auresangarri, integratu, argi eta segurtasuneko bat sortzeko, eta erraztasunak emango dituen ezagutzarako eta ulermenerako eta, ondorioz, pertsonak eta enpresek jarduteko eta erabakiak hartzeko. Hain zuzen, araugintza-ekimen honen helburua da segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzea, hau lortu nahi baita dopinaren aurkako esparru juridiko konplexuaren barruan: ziurtasun-gune bat sortu, eta 12/2012 Legearen eta nazioarteko esparru juridikoaren arteko talkarik ez izatea; izan ere, ezinbestekoa da bi horiek harmonizatzea. UNESCOk 2005eko urriaren 19ko bileran onetsi zuen Kiroleko Dopinaren aurkako Nazioarteko Konbentzioa, eta Espainiak berretsi egin zuen, bai eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ere. Horrenbestez, konbentzio hori gure ordenamendu juridikoaren zati bat da, Konstituzioaren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gardentasun-printzipioa aplikatuz, administrazio publikoek erraztasunak emango dituzte irispide erraza, unibertsala eta eguneratua izan dadin indarrean den araudia eta hura prestatzeko prozesuari dagozkion dokumentuak eskuratzeko, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritako moduan; argi definituko dituzte araugintza-ekimenen helburuak eta justifikazioa, arauen atarikoan edo zioen azalpenean; eta aukera emango dute hartzaile izan daitezkeenek parte-hartze aktiboa izan dezaten arauen prestakuntzan. Aurreproiektuak argi eta garbi definitu eta justifikatzen ditu erregulazioaren helburuak, hala tituluaren, nola zioen azalpenean eta artikuluetan.

Efizientzia-printzipioa aplikatuz, araugintza-ekimenak saihestu egin behar ditu karga administratibo alferrikakoak edo ezinbesteko ez direnak, eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu aplikatzeko orduan. Araugintza-ekimen honek bat egiten du efizientzia-printzipio horrekin, oso ondo identifikatuta baitaude helburuak –gure legedia Dopinaren aurkako Mundu Koderak egokitzea– eta horiek lortzen aurreikusitako araugintza-neurriak.

H.- PROIEKTUAREN HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK. PROPOSATUTAKO NEURRIEN EGOKITASUNAREN ETA BIDERAGARRITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA.

Atal honetan, Aurreproiektuaren edukia aztertu, eta bertan egindako proposamenak azalduko ditugu.

Hasteko, aurreproiektu honen bidez Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012



Legearen 1. artikulua aldatzen da, oso garrantzitsua den zerbait gehitzeko testuari; zehazki, lege-arau horretan jasota uzteko bertan agertzen diren arau eta definizioak interpretatzeko orduan, kontuan hartuko direla, batetik, Dopinaren aurkako Mundu Kodean jasotako arauak eta irizpideak, bestetik, nazioarteko estandarretakoak, eta azkenik, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak onartutako Dopinaren aurkako Mundu Programa osatzen duten arau edo dokumentu teknikoetan bildutakoak.

Bestalde, Lege-aurreproiektuan gehitu da, lege horren ondoreetarako, motaren arabera sailkatu behar direla kirolariak; zehazki, beren kirol-mailaren arabera (nazioartekoa ala ez) eta beren egoeraren arabera (federatua ala ez). Hain zuzen ere, kirolariei eska dakizkiekeen betebeharrak edo erantzukizun jakin batzuei dagokienez, kirolaria zein motatakoa den hartzen da kontuan. Horrek esan nahi du alor edo gai honetako eginbehar edo betebeharrak guztiak ez direla kirolari guztiek bete beharrekoak; izan ere, kirol-maila jakin batera iritsi direnei baino ez zaizkie egokituko eginbehar edo betebeharrak horiek guztiak. Ildo beretik, erantzukizuna ere ez da berdina izango kasu guztietan. Hau da, ez da gauza bera dopin-arauak nazioarteko kirolari batek edo bere aisialdian kirola tokiko edo autonomia-erkidegoko esparruan egiten duen kirolari batek haustea, adibidez, diligentzia faltagatik produktu jakin bat kontsumituta.

Bestalde, Aurreproiektuan ezartzen duenez, kirol-jarduna utzi ondoren, lehiaketara itzultzea Dopinaren aurkako Mundu Kodean espresuki aurreikusitako irizpideen arabera egingo da, eta berdina dio kirol-jarduna dopinaren alorreko arauak hausteagatik etete- edo desgaituntza-zehapena bete bitartean utzi izana. Hain zuzen, Dopinaren aurkako Mundu Kode berria heldzen zaio gai horri, kirola utzi eta gero, lehiaketetara itzuli nahi duten kirolarien kasuak jorrazteko. Logika onari jarraikiz, uste da kasu horietan berme batzuk eman behar direla dopin-kontrolen programak betetzeari dagokionez. Jakina, hori guztia maila jakin bateko nazioarteko lehiaketetan aritu nahi duten kirolariei bakarrik aplikatuko litzaieke.

Gainera, Aurreproiektuak kirolarien eginbeharren barruan jaso du hau: pertsona batek dopinaren alorreko arau-hauste bat egiteagatik zigor-, diziplina- edo administrazio-zehapen bat jaso baldin badu, ez kontratatzea, hitzartzea edo jasotzea hark emandako kirol-zerbitzurik, ordainpekoa izan ala ez, araudiaren arabera hala egitea debekatuta dagoen aldietan. Bada, kirolariaren eginbehar edo erantzukizun horrek Legeak «elkartze edo lotura debekatua» deritzonaren esparruan aurreikusten duen arau-haustearekin du zerikusia; beste era batera esanda, dopinaren alorreko arau-hauste bat egiteagatik zehatuta dagoen pertsona batekin profesionalki lotuta egon edo harengandik zerbitzuak jasotzearekin, zehapena betetzeko aldia.

Gainera, Aurreproiektuan gehitu da dopinaren aurkako organoak A edo B lagina banatu ahal izango duela, eta lehen flaskoa A laginaren lehen analisian egiteko erabili, eta bigarren flaskoa, berriz, emaitza berresteko analisian egiteko. Kasu horretan, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak unean-unean ezarritako eta argitaratutako Nazioarteko Estandarrak bete beharko dira. Aurreikuspen horren helburua da, hain zuzen, mekanismo bat arautzea, laginak berriz ere analizatu ahal izateko balizko arau-hausteen preskripzio-epareen barruan. Horretarako aukera izatea garrantzitsua da; izan ere, azken urteotan agerian geratu da dopinaren aurkako laborategiak gai direla substantzia edo metodo debekatuak detektatzeko teknikak hobetu edo perfektionatzeko. Hortaz, ezin da arau-hauste baten egiaztapena une jakin bateko lehen analisisira mugatu: aukera egon behar da aurrerago lagin berbera berme jakin batzuekin aztertzeke, besteak beste, detekzio-sistema edo -metodo berriak baldin badaude. Noski, eskubide guztiak bermatzen zaizkio kirolariari, laginak bigarren aldiz analizatuz gero.

Aurreproiektuan, gainera, garrantzizko aipamen bat sartu da, pasaporte biologikoak ematen



dituen datuen, informazioen eta emaitzen balio zientifikoaren presuntzioarekin zerikusia duena. Aintzat hartu behar da pasaporte biologikoan ageri diren datu, informazio eta emaitza edo ondorio horietan oinarrituta, dopinaren aurkako erakundeak behar bezala egiaztatutzat jo dezakeela dopinaren aurkako arauak hautsi direla. Pasaporte biologikoarekin zerikusia duen guztia Dopinaren aurkako Mundu Kodean zein unean-unean indarrean dauden nazioarteko estandarretan ezarritako horri buruzko xedapenen arabera arautuko da; hain zuzen, pasaporte biologikoa funtsezko tresna bat delako kirolaren nazioarteko esparruan, dopinaren aurkako arau jakin batzuk hautsi direla egiaztatze aldera. Argi dago substantzia jakin batzuk erabili edo kontsumitu direla egiaztatzeko modu bat dela kirolarietarako lagin fisiologikoak hartzea dopin-kontrolatan, substantzia debekatuak edo haien metabolito edo markatzaileak hautemateko. Baina, horrez gain, azken urteotan, badago beste mekanismo fidagarri bat, kirolean debekatuta dauden substantziak edo metodoak erabiltzeak eragindako arau-haustekak egiaztatutzat jotzeko erabil daitekeena. Horretarako, pasaporte biologikoko emaitzen egiazkotasunaren presuntzioa jaso behar da Legean; izan ere, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak esan duenez, nazioarteko komunitate zientifikoaren babes eta onarpen osoa du, debekatuta dauden substantziak kontsumitu eta debekatuta dauden metodoak erabili direla egiaztatzeko.

Halaber, Aurreproiektuak badakar Dopinaren aurkako Mundu Kodean jasotzen den beste kontu bat, honekin zerikusia duena: nazioarteko estandarrak edo araudian jasotako beste alderdi batzuk ez betetzeak ez duela zertan baliogabetu analisisien emaitza edo dopinaren aurkako arauak hautsi direla egiaztatzeko beste edozein probaren emaitza. Halakoetan, eraginpeko pertsonak egiaztatzen baldin badu nazioarteko estandarretan edo araudian adierazitako xedapenen bat ez betetzeak analisisaren emaitza txarra izatea edo lokalizazioak huts egitea ekar dezakeela, dopinaren aurkako erakundeak frogatu beharko du ez-betetze horrek ez duela eragin analisisaren emaitza txarra izatea edo lokalizazioak huts egitea. Horrenbestez, gai honi heltzen zaio: protokoloaren ez-betetze jakin batzuek —analisiaren emaitzetan ondorioz ez dutenek, adibidez— zer eragin izan dezaketen dopinaren aurkako arauak hautsi diren ala ez zehazteko prozeduran. Halakoetarako, Dopinaren aurkako Kodeak, egokiro, halako froga-karga batzuk ezarri ditu, zeinak ustezko arau-hausleari ala dopinaren aurkako erakundeari egokituko zaizkion, kasua zein den, oinarritzat hartuta ez-betetzea edo desbideratzea egon den ala ez Nazioarteko Estandarretan jasotako alderdi batean edo gehiagotan.

Honi ere heldu zaio Aurreproiektuan: beste autonomia-erkidego bateko, Estatuko edo nazioarteko erakunde edo organismo batek emandako erabilera terapeutikoko baimenen baliozkotasunari, indarraldiari eta eraginkortasunari eragingo liekeen kontu bat. Hain zuzen, asmoa da Euskal Autonomia Erkidegoko araudia eta Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 4.4 artikuluan eta Nazioarteko Estandarretan xedatutakoa harmonizatzea. Gogoratu behar da ezen, nazioarte mailako kirolari federatuen kasuan, nazioarteko federazioak bere arauen arabera emango dituela erabilera terapeutikoko baimenak. Edozein kasutan, hau bermatzen da: Lege honen aplikazio-eremuaren barruan dopin-kontrol bat egiten zaion edozein pertsonak indarrean dituen erabilera terapeutikoko baimenen berri eman beharko du, nahitaez, dopin-kontrola egitean.

Aurreproiektuak, arestian laginak berriz ere aztertzeke aukerari buruz esandakoarekin bat, hau dio: laborategi batek jakinarazten badu dopin-kontrol baten emaitza negatiboa dela edo emaitzak ez duela ekarri dopin-arauak hausteaz akusatzea, lagina gorde eta berriz ere analizatu ahal izango da, edo analisi gehigarriak egin ahal izango dira, edozein unetan, baldin eta dopinaren aurkako kontrolaren titulartasuna duen erakundeak edo Dopinaren aurkako

Mundu Agentziak hala egiteko eskatzen badute. Horrelakoetan, Dopinaren aurkako Mundu Agentziak unean-unean ezarritako eta argitaratutako Nazioarteko Estandarretan aurreikusitakoaren arabera jokatu beharko da.

Aurreproiektuaren arabera, dopinaren aurkako agintaritzek egiaztatu edo homologatutakoez bestelako laborategiek egindako kontrol forentse fidagarrien bidez ere egiaztatu ahal izango dira dopinaren alorreko arau-hauste jakin batzuk. Hau da, analisi forentsetan oinarritutako froga-mekanismoak erabil daitezke dopinaren alorreko arau-hauste jakin batzuk egiaztatzeko, eta ez dute ezinbestean bat egin behar dopinaren aurkako laborategi homologatuek egiten dituzten kontrol tradizionalekin. Lagin baten alterazioa, manipulazioa edo faltsifikazioa, adibidez, ez da substantzia baten ohiko detekzioan datzan arau-hauste bat; egin-eginean ere, froga forentseen bidez hauteman daiteke arau-hauste hori, guztiz onargarriak baitira frogabide gisa.

Aurreproiektuan xedatzen denez, dopin-kontroltan eskuratutako laginak laga behar dizkio kirolariak laginak hartu dituen dopinaren aurkako agintaritzari, zeinak hamar urtez kontserbatu ahal izango ditu, horixe baita, jakina denez, dopin-alorreko arau-hausteen preskripzio-epea. Esan bezala, lagin horiek behar bezala kontserbatu beharko dira, eta jaso eta berehala aztertu ahal izango dira, edo, bestela, jaso ondorengo edozein unetan, baldin eta hala egiteko eskatzen badu edo laginak hartu zituen dopin-agintaritzak, edo Dopinaren aurkako Mundu Agentziak, edo dopinaren aurkako beste agintaritzak batek —bidezko arrazoiren bat dagoela egiaztatuz gero—, dela debekatutako substantzia eta metodoak detektatzeko, dela kirolariaren parametro biologikoen profila osatzeko. Dopinaren aurkako Mundu Kodean jasotako eskakizun hori bat dator dopinaren aurkako erakunde edo elkarteek osatu beharko luketen lankidetzak eta kooperazio-esparruarekin; batez ere, jarraipena edo azterketa egin behar zaionean kirolariren bati, dopinaren alorreko arauen bat hautsi duelakoan.

Aurreproiektuan adierazten da unean-unean indarrean dagoen zerrendan sartuta dauden substantzia eta metodo debekatuak espezifikokoak edo ez-espezifikokoak izan daitezkeela. Hain zuzen, bertan ezartzen da substantzia eta metodo espezifikotzat hartuko direla unean-unean argitaratutako zerrendan halakotzat hartu eta kirol-errendimendua hobetzearekin zerikusi zuzenik ez duten helburuetarako erabil daitezkeenak. Halaber, bertan xedatzen da espezifikotzat ez direla substantziak bakarrik joko, Dopinaren aurkako Mundu Kode berria indarrean sartu arte gertatzen zen bezala; substantziaz gain, debekatutako metodoak ere jo daitezke espezifikotzat, baldin eta horrela jasota edo adierazita badago unean-unean argitaratutako dopin-eragileen zerrendan.

Horrez gain, Dopinaren aurkako azken Mundu Kodeak ekarritako berrikuntza garrantzitsuenetako bat ere jasotzen du Aurreproiektuak, eta abusuzko substantzia deritzen substantzien agerraldiarekin du zerikusia. Halakotzat hartzen dira unean-unean indarrean dagoen debekuen zerrendan berariaz halakotzat jotzen direnak. Presente eduki behar da ezen, substantzia bat abusuzkotzat joko bada dopinaren aurkako araudiaren ondorioetarako, kontuan hartuko dela gizartean gehiegi erabiltzen ote den, sarri, kirolaz bestelako testuinguruetan.

Aurreproiektuak aukera hau ere jaso du: dopinaren alorreko arauak ustez hautsi izanaren ondoriozko espediente baten berri jasotzean, eraginpeko pertsonak libreki onartzea behin-behineko etena, halako moldez non egoera horretan dagoen denbora aintzat hartuko zaion zehapenaren betetze gisa, zehapenik ezartzen bazaio.

Dopinaren aurkako Mundu Kodean aldatu denez, hau ere eraman da Aurreproiektura: kirolariari aldez aurretik abisatu edo ohartarazi behar zaio litekeena dela dopinaren alorreko arauak hausteagatik zehatuta dagoen pertsona batekiko lotura izatea, eta horrek kirolariari berari ekar diezaiokeela arau-hauste hori egitea.

Halaber, Aurreproiektuak dopinaren alorreko arau-hausteen katalogoan sartu du hau: edozein motatako mehatxu edo larderia-egintza bideratzea, dopinaren aurkako arauekin lotutako ustezko arau-hauste edo ez-zilegi bati buruzko informazioa jakinarazteko asmoa kentzeko, edo dopinaren aurkako erakunde edo alor horretako agintaritza eskudun bati informazioa eman dionaren aurkako errepresaliak hartzea. Dopinaren aurkako Mundu Kode berria jasotako arau-haustea da.

Ildo beretik, Aurreproiektuaren arabera, jokabide batzuetan, arau-haustetzat hartuko dira hala tipifikatuta dauden jokabideak gauzatzea, nola jokabide horiek gauzatzen saiatzea.

Aurreproiektuan jasotako zehapen-erregimenaren barruan, eta betiere laginak jasotzeari uko egitea alde batera utzita aurreikusita dauden gainerako jokabideen edo ekintzen kasuetan, zehapena bi eta lau urte bitartekoa izan daiteke, kirolariak egiaztatutako salbuespenezko inguruabarrak zein diren. Kasu horietan, federatu gabeko kirolaria bada, zehapenak bi urte iraungo du, gehienez ere.

Halaber, kasu honetarako zehapen-araubidea ere ezarri du Aurreproiektuak: abusuzko substantzien erabileraren edo kontsumoaren ondorioz urratu badira dopinaren aurkako arauak. Halakoetan, arau-hausleak hau frogatzeko aukera izango du: substantzia horiek lehiaketatik kanpo hartu zituela eta ez dutela zerikusirik kirol-errendimenduari. Kasu horretan, etenaldia edo desgaiakuntza-aldia hiru hilabetekoa izango da eta hilabetera murriztu ahal izango da, frogatzen baldin bada eraginpeko pertsonak dopinaren aurkako agintaritzek ezarritako substantzien erabilera desegokiaren aurkako programa batean parte hartu duela. Bestalde, kirolariak abusuzko substantziak lehiaketan hartu, erabili edo eduki bazituen ere, frogatzen baldin badu horiek hartu, erabili edo eduki zituen testuinguruak ez zuela zerikusirik izan kirol-errendimenduari, nahi gabeko egintzat edo jokabidetzat hartuko da zehapena zehazteko orduan. Garrantzitsua da beren-beregi jasota uztea, Dopinaren aurkako Mundu Kode berria argitaratu eta gero oker zabalduetako albisteetan esandakoa gorabehera, hau ez dela egia: kirolariak droga sozialak erabiltzea edo kontsumitzea ez dela arau-haustetzat hartzen jada, edo, arau-haustetzat jota ere, ez dela zigortuko. Ikus daitekeenez, Dopinaren aurkako Mundu Kode berriak, eta, ildo berean, Aurreproiektuak, arau-haustetzat jotzen dute droga sozialaren erabilera edo kontsumoa, eta, beraz, dagozkion zehapenak jarri behar dira mota horretako droga sozialak kirolari baten organismoan hautematen direnean.

Aurreproiektuan, gainera, zehapen-erregimen bat ere ezarri da arau-hauste berriak zigortzeko: edozein motatako mehatxu edo larderia-egintza bideratzea, dopinaren aurkako arauekin lotutako ustezko arau-hauste edo ez-zilegi bati buruzko informazioa jakinarazteko asmoa kentzeko, eta dopinaren aurkako erakunde edo alor horretako agintaritza eskudun bati informazioa eman dionaren aurkako errepresaliak hartzea. Larritasuna eta inguruabarrak zein diren, federazio-lizentzia eten, kendu edo ezin eskuratzea dakarren zehapena ezarriko da, bi urtez gutxienez eta biziartean gehienez.

Aurreproiektuan apur bat aldatu da arau-hauste bat baino gehiagoko kasuetarako zehapen-erregimena; zehazki, dopinaren aurkako arauak bigarren aldiz hausten diren kasuetan aplikatzekoa. Arau-hauste bat baino gehiagoko kasuetarako ezarri da etenaldia edo desgaiakuntza-aldia murriztu daitekeela zigortutako pertsonari zehapena jarri eta gero, betiere



zigortutako pertsonak lagundu egiten badu. Edozein kasutan, dopinaren alorreko hainbat arau-hauste egiten badira, Dopinaren aurkako Mundu Kodearen 10.9.3 artikuluan aurreikusitako irizpideak aplikatuko direla xedatu da.

Era berean, zenbait berrikuntza txertatu dira Aurreproiektuko zehapen-erregimenean. Hala egitea justifikatzen duten inguruabar astungarriak daudenean, etetearen edo desgaikuntzaren iraupena beste bi urtez luzatu ahal izango da, salbu eta eraginpeko pertsonak egiaztatzen badu ez zuela izan arau-haustea egiteko asmorik. Halaber, etete- edo desgaikuntza-zehapenak ezarri behar badira, eta zehapen horien iraupena lau urtekoa edo gehiagokoa bada, aldi hori urtebetez murriztu ahal izango da, baldin eta tartean den pertsonak arau-haustea egin duela aitortzen badu eta proposatutako zehapen-aldia onartzen badu; hori espresuki adierazi beharko du, gehienez ere hoguei eguneko epean, balizko arau-haustea jakinarazten zaionetik aurrera. Horrelakoetan, ezin izango zaio beste murrizketarik ezarri zehapen-aldiari, legean aurreikusitako inguruabarrekin bat. Bestalde, tartean den pertsonak arau-haustea egin duela aitortzen badu eta dopinaren aurkako erakundeak proposatutako zehapena onartzen badu, etenaldia edo desgaikuntza-aldia honako hauek aintzat hartuta murriztu ahal izango da: arau-haustearen larritasuna, arau-hauslearen erruduntasun-maila eta arau-haustea arau-haustea laster aitortu izana. Hori gertatzen denean, batzuetan, arau-haustea egin dela pentsatzea eragin duen dopin-kontrolaren egunetik aurrera hasiko da kontatzen zehapena-aldia, edo, beste batzuetan, berriz, arau-haustea egin den egunetik aurrera. Nolanahi ere, erabakitako zehapen-aldiaren gutxienez erdia bete beharko du zehatutako pertsonak, zehapen bat ezar diezaiotela onartu duen egunetik aurrera edo behin-behineko eteteari men egin dion egunetik aurrera.

Aurreproiektuan jaso da ezen, dopinaren aurkako erakunde batek sari ekonomiko bat berreskuratzen badu, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituela sari hori banatzeko lehiaketan emaitzak aldatu izan ez balira horretarako eskubidea izango zuketean pertsonen edo entitateen artean.

Aurreproiektuak, nazioarteko arau berriekin bat etorriz, hau jaso du: etenaldian dauden kirolariei, zehapena betetzen ari diren bitartean, lehiaketatik kanpoko dopin-kontrolak egin ahal izango zaizkie, eta, gainera, kontrol horiek egitera bideratutako zenbait betebeharrak betetzeko eskatu ahal izango zaie: adibidez, non dauden jakiteko datuak ematea.

Bestalde, hau jaso da, zehatutako pertsonak ezarri zaion etenaldian edo desgaikuntza-aldian lehiaketetan parterik ez hartzeko betebeharrak betetzen ez badu edo: lortutako emaitzak baliogabetuko direla. Horrelakoetan, jatorrizko zehapen-aldiaren amaieran beste etenaldi edo desgaikuntza-aldi bat gehituko da, jatorrizko edo hasieran ezarritako aldiaren iraupen berekoa.

Azaldu den bezalaxe, arestian aipatutako arauen xedapen batzuk benetan betetze aldera, Aurreproiektuan beren-beregi adierazi da dopin-kontrolatan jasotako laginak kontserbatzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duen guztian Dopinaren aurkako Mundu Agentziak argitaratuta unean-uneko Nazioarteko Estandarretan jasotakoa aplikatuko dela. Horrekin zuzenean lotuta dago espresuki jaso dela Dopinaren aurkako Mundu Agentziari laga edo jakinarazi ahal izango zaizkiola dopin-kontrolarekin edo dopinaren aurkako arauak haustearekin zerikusia duten datuak eta informazioa, Dopinaren aurkako Mundu Kodean aurreikusitako moduan, baldin eta entitate horrek hala egiteko eskatzen badu, arrazoiak emanez.



I.- XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Parlamentu-teknikaren esparruan aurreikusitakoari jarraikiz, xedapen gehigarriak erabiltzen dira hauek sartzeko: testu artikulatuan orokorrean araututakoez bestelako erregimenak, legearen beste apartatu batzuetan kokatu ezin direnak. Aurreproiektu honek ez du xedapen gehigarririk.

J.- ZUZENBIDE IRAGANKORRA.

Legegintzako aldaketek arazoak sor ditzakete aurreko araugintza-egoeratik lege-egoera berrira igarotzean. Testu artikuludunean, xedapen iragankorren bitartez eman nahi izan zaio konponbidea arazo horri. Lege-aurreproiektuaren zirriborroaren barruko xedapen iragankorraren helburua izan da aldiarteko gatazkak saihestea.

Aurreproiektuak diziplina- edo zehapen-erregimenari dagozkion xedapen iragankorren irizpide orokorrarekin bat datorren xedapen iragankor bakarra du. Hari jarraikiz, lege berria indarrean sartu aurretik dopinaren alorrean egin diren arau-haustek 12/2012 Legearen mende egongo dira, salbu eta interesdunak bere kabuz lege berria aplikatzea aukeratzen badu, onuragarriagoa izango zaiolako ustean («lex mitior»). Irizpide berbera ezartzen da diziplina-prozeduretarako ere: lege hau indarrean sartu aurretik kiroleko dopina zigortzeko alorrean hasi diren diziplina-prozedurak aurreko araudiaren mende egongo dira, salbu eta interesdunak bere kabuz lege hau aplikatzea aukeratzen badu.

K.-AZKEN XEDAPENAK.

Azken xedapen bakarrak araua indarrean sartzeko du hizpide. Horretarako erabili den irizpidea Eusko Legebiltzarrak onetsitako legeetarako erabili ohi dena da, hots, «Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian» argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean. Ez dago arrazoirik lege honi epe berezirik ezartzeko.

L.- TESTUAK INDARREKO ARAUDIAN DUEN ERAGINA.

Araugintza-teknikako jarraibideekin bat etorriz, xedapen orokorren proposamen guztiekin batera aurkeztu behar da proposamen berriak eragingo dien xedapenen zerrenda bat, baita gai berari buruzko aurreko xedapenen indarraldia jasoko duen taula bat ere. Azken horretan, beren-beregi jaso behar dira erabat edo partzialki baliogabetuta geratu direnak.

Proposatutako lege-aurreproiektuak ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzen duenez, lege horri bakarrik eragingo dio xedapen orokor berriak.

M.- ARAUGINTZA-TEKNIKAREN ALORREKO ZENBAIT GOGOETA ALDAKETA DAKARTEN XEDAPENEI BURUZ.

Memoriaren hasieran adierazi den bezalaxe, Lege-aurreproiektu hau idazterakoan aintzat hartu dira Gobernu Kontseiluak 1993ko martxoaren 23an onartu zituen eta Lehendakaritza,

Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako sailburuaren 1993ko apirilaren 6ko Aginduaren bidez argitaratu ziren araugintza-teknikako jarraibideak.

Jarraibide horiek aplikatuta, helburua da legeen kalitate formala bermatzea; izan ere, legearen segurtasun juridiko handiagoa eta ulergarritasun hobea dakar horrek. Memoria honetan, aintzat hartu diren araugintza-teknikako jarraibide batzuk baino ez dira aipatuko.

Araugintza-teknikako jarraibideen arabera, oro har, aldaketa-arauen kasuan, egokiagoa da beste xedapen bat onestea jatorrizko araua eta ondorengo aldaketak aldi berean indarrean edukitzea baino, batez ere aldaketak oso zabalak direnean, edo bat baino gehiago. Kasu horietan, neurritz erabili behar dira aldaketa-arauak. Alabaina, hizpide dugun kasu honetan, arau-aldaketaren teknika hobetsi da, hemezortzi artikulua baino ez zaizkiolako aldatuko berrogeita hamabi artikulua eta zortzi xedapen gehigarri dituen lege bati. Gainera, aldaketa horietako gehienek Legearen artikulua zabalari zati txikiari eragiten diete.

Aurreproiektua esparru-testua eta erregulazio-testua bereizten ahalegindu da. Esparru-testua ez da artikulua titulua nahasi behar; aldatzen diren xedapenak zein diren eta aldaketa hori nola egingo den adierazten du. Esparru-testuak zehatz adierazten ditu aldatzen den zatiari buruzko datuak, eta argi eta argi erakusten du zer aldaketa mota egin den (gehikuntza, idazketa berria, kentzea, eta abar). Aldiz, erregulazio-testua testu berria da; hau da, aldaketa bera. Bereizi egin behar da esparru-testutik, aparteko paragrafo batean, komatxo artean eta koska erabilia, tipografikoki argi ikus dadin testu berria dela.

Aldaketak arau baten zenbait manuri eragiten dienez, artikulua bakarrik apartatuta banatu da, manu bakoitzeko bana. Esparru-testu gisa, aldatzen den manuaren erreferentzia baino ez da jarri, arauaren titulua jarri gabe, hori sarrera-paragrafoan azaltzen baita. Ondorioz, aldatutako manu beste apartatu dago aurreproiektu honetan.

Aldaketen ordenari dagokionez, araugintza-teknikako jarraibideek ezartzen dute arau bereko manuak arauaren barne-banaketari jarraikiz aldatuko direla. Eta irizpide horri jarraitu zaio aurreproiektu honetan.

Araugintza-teknikako jarraibideek onartu egiten dute, dena den, artikuluen apartatuak aldatzen direnean, eragindako apartatu edo paragrafoaren idazketa berria baino ez jartzea.

Aurreproiektuan ez dira jatorrizko zenbakiak aldatu.

Araugintza-teknikako gomendio eskuarki onartuen arabera, xedapen oso konplexu eta luzeetan, komeni da aurkibide bat jartzea azalpen-atalaren aurretik. Lege-aurreproiektu hau laburra denez, aurkibidea ez da beharrezkotzat jo.

Azalpen-atalean adierazi dira Lege-aurreproiektu hau eragin duten arrazoiak, helburuak, horretarako ahalmena ematen duten oinarri juridikoak, eta erregulazioaren printzipioak eta ildo orokorrak, bereziki berritzaileenak direnak.

Testu artikulatua ez da ataletan, kapituletan, tituletan edo liburuetan banatu Lege-aurreproiektuak artikulua bakarrik duelako.

N.- GENEROAREN ARABERAKO ERAGINA.



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikuluan ezartzen da arau bat egin aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar duela zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu egin behar du arau horretan proiektatu den jarduketak ondore positiboak edo kontrakoak izan ditzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.

Aztergai dugun legearen helburuak aintzat hartuta (hau da, ekainaren 21eko 12/2012 Legea Dopinarean aurkako Mundu Koderak egokitzea), ez da ikusten generoaren arabera eragin nabarmena izango duenik. Ildo beretik, ez da espero aldaketa horrek diskriminazio-egoerarik sortu edo gizonen eta emakumeen kolektiboetako modu erabat ezberdinean eragitea.

O.- AURREKONTU-KARGA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak hau ezartzen du bere 10.3 artikuluan: «Era berean, espedienteak memoria ekonomiko bat edukiko du, eta, hor, egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko da: gastu eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta, orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk. Egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du».

Halaber, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituenak, 42. artikuluan eskatzen du, kontrol ekonomiko-normatiboari buruzko txostena emango bada, memoria bat, besteak beste, honako hauek jasoko dituena: hori indarrean jartzeak ekarri ditzakeen aurrekontu-gastu eta diru-sareren kuantifikazioa; gastu horien finantzaketa; aurrekariaren deskribapena eta xedapenaren beharrezko justifikazioa; xedapenaren aurrekontu-programa ekonomikoaren deskribapena eta xedapenaren helburuen, ekintzen eta eragindako adierazleen identifikazioa; xedapenaren aplikazioaren ebaluazio ekonomikoa eta soziala, eta proposatutako erregulazioaren ildo orokorrak eta berau ahalbidetzen duten aurrekontu juridikoak ezagutzeko datuak, txostenak eta azterketak. Gainera, 43. artikuluan zehazten da baliabide materialei eta giza baliabideei buruzko informazioa ere eman behar dela, gastu arruntak edo kapital-gastuak diren bereizita, baita proposatutako xedapenaren funtzionamenduaren eta errendimenduaren kostuaren edo emango dituen zerbitzuen erabilgarritasunari buruzko azterketa ekonomiko bat egin ere, besteak beste.

Aholku Batzorde Juridikoaren 43/1999 irizpenean ohartarazi zutenek, azken helburua da analisi sakon bat egitea, ezarriko den erregulazioak gizarteari eragingo dion esfortzu ekonomikoa edo bestelako kontuan hartu, eta ekar ditzakeen onura ekonomikoekin edo bestelakoekin erkatuko duena, aukera biak proportzionaltasun-irizpidearen arabera haztatzeko. Laburbilduz, helburua da aurreproiektu honetan jasotako erregulazioak eragingo duen gastuaren ebaluazioa egitea, gastu publikoaren ekonomia- eta efikazia-irizpideak betetzen direla bermatze aldera. Horrez gain, aurreproiektu honek banakoengan eta ekonomian, oro har, izango duen eragin ekonomikoa ere balioetsi behar da, bideragarria eta zentzuzkoa dela bermatzearen.

Arestian aipatutako aurreikuspen guztiak barne hartuta Aurreproiektuak dakarren aurrekontu-kargari dagokionez, aipatu behar da proposatutako legegintzako aldaketak ez duela 12/2012 Legea izapidetzeko onetsi zen memorian aurreikusitako aurrekontutik haragoko aurrekontu-karga garrantzitsurik eragingo; izan ere, bertan aurreikusi zen lege horretan aurreikusitakoa betetzeko beharrezkoak diren administrazio-egiturak jarri behar dituela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak. Horrenbestez, 12/2012 Legean aurreikusitako administrazio-egiturak sortzeak aurrekontuan eta ekonomian duen eragina arau hori bera izapidetzean aztertu zen.

Proposatutako xedapena 12/2012 Legearen aldaketa denez eta aldaketa horren helburua, funtsean, dopinaren aurkako alorreko arau-haustekak, zehapen-erregimena eta antzeko kontuak tipifikatzea denez, legeak ez du inolako eraginik izango ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuetan, ez legeak xede duen jardura-sektorean ere.

Ildo beretik, proposatutako legegintzako aldaketak ez dakar berekin inolako egitura, erakunde edo organismoik espresuki sortzerik. Halaber, ez du zerbitzu berririk ezartzea aurreikusten, eta, beraz, ez du eragin ekonomikorik izango.

Laburbilduz, 12/2012 Legea egokitzeko lege-testu berriak ez du zertan handitu orain arte egon diren langileen edo baliabide materialen kopurua; hortaz, gastuak ez ditu nabarmen handituko, ezta diru-sarrera publikoak murriztu ere. Gauzak horrela, aldatutako arauak ez du zuzeneko aurrekontu-eraginik izango.

Izpta. Jon Redondo Lertxundi
Jardura Fisikoaren eta Kirolaren